

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 2690

*EBAZPENA, 2021eko apirilaren 19koa, Osasuneko sailburuordearena, honako erakunde hauentzako laguntzak ebaztekoa: profesionalen elkargoak, osasun arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteak, eta osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoak. Laguntzen xedea izango da erakunde horien funtzionamendua eta langileen etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatzea 2020an.*

Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Aginduaren bidez (2020ko abenduaren 31ko EHAA), laguntza-deialdi bat egin zen, honako hauei zuzendua: osasun arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteak, osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoak eta osasun-arloko profesionalen elkarteak. Laguntzen xedea zen erakunde horien funtzionamendua eta langileen etengabeko prestakuntzarako jarduerak antolatzea, 79.409 euroko zenbatekoa.

Agindu horren 11. artikulua ezartzen du lehiaketa-prozedura Osasuneko sailburuordearen ebazpen bidez ebatziko dela, Balorazio Batzordeak proposatuta, zeinaren osaera agindu horren 9.2 artikuluan zehazten baita.

Aurkeztu diren eskabideak ebaluatu ondoren eta Balorazio Batzordeak proposamena eginda, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntzak ematea I. eranskinean aipatzen diren erakundeei, adierazitako modalitateetarako eta zehaztutako zenbatekoekin.

Bigarrena.– Laguntzak ukatzea II. eranskinean aipatzen diren erakundeei, eranskinean bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Laguntzak artxibatzea III eranskinean aipatzen diren erakundeei, erakunde eskaizailleek atzera egiteagatik, eskabideak bikoiztuta edota gaizki aurkeztuta egoteagatik.

Laugarrena,- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena EHAA-n argitaratzen denetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritik. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein lege-ekintza egin ahal izango dute.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 19an.

Osasuneko sailburuordea,  
JOSÉ LUIS QUINTAS DIEZ.

## I. ERANSKINA

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

## ERAKUNDEEN ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO LAGUNTZAK

ESP. ZKIA	Erakundea	Zenbatekoa (eurotan)
1	Academia de Ciencias Médicas de Bilbao	9.711,99 €
4	OEE Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea	345,60 €
7	Asociación para la atención a niños con alteraciones del desarrollo Kulunka	11.000,00 €

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

ESP. ZKIA	Erakundea	Ikastaroa	Zenbatekoa (eurotan)
3	Colegio Nacional de Ópticos-Optometristas – Quinta Delegación Regional	Cuánto y cuándo es conveniente prescribir prismas al paciente.	661,42 €

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

## ERAKUNDEEN ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO LAGUNTZAK

ESP. ZKIA	Erakundea	Ukatzeko arrazoa
2	Asociación Española de Micología	Ez du bere lana osasunaren arloan egiten (deialdia egiteko aginduaren 1. a artikulua)
3	Federación Española de Enfermedades Raras	Ez du egoitza ofiziala EAEn (deialdia egiteko aginduaren 1. a artikulua)
5	Paliativos Sin Fronteras	Ez dago defizitik (deialdia egiteko aginduaren 6.2 artikulua)
6	Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa	Ez dago defizitik (deialdia egiteko aginduaren 6.2 artikulua)

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

ESP. ZKIA	Erakundea	Ikastaroa	Ukatzeko arrazoa
1	Colegio Nacional de Ópticos-Optometristas – Quinta Delegación Regional	Clínico de ortoqueratología	Eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik (deialdia egiteko aginduaren 10. artikulua)
2	Colegio Nacional de Ópticos-Optometristas – Quinta Delegación Regional	Factores clínicos que influyen en la adaptación de lentes oftálmicas multifocales	Eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik (deialdia egiteko aginduaren 10. artikulua)
4	Colegio de Enfermería de Bizkaia	Electrocardiografía básica para enfermeras	Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak ez duelako jarduera egiaztatu (deialdia egiteko aginduaren 5.1.b artikulua)
5	Colegio de Enfermería de Bizkaia	Enfermería en trastornos por ansiedad, pánico y fobias	Jarduera 2020an ez egiteagatik (deialdia egiteko aginduaren 5.1.b artikulua)

## III. ERANSKINA

## ARTXIBATUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

ESP. ZKIA	Erakundea	Artxibatzeko arrazoia
6	Paliativos Sin Fronteras	Prozedurari uko egin dio